



## Ipar Itxaurrondo

# Ipar Intxaurrondon parrandarako prest

Astlehenera bitartean, Ipar Haizea elkarteak antolatuta, Ipar Intxaurrondoko festak egingo dira. Aurten go berrikuntza nagusietakoa Gabriel Celaya plazan egingo den patin-hockey txapelketa izango da.

Gladys Villalba

Ipar Intxaurrondo ikastolako, Maria Auxiliadora ikastetxe-ko eta Altzako talde batek parte hartuko dute patin-hockey txapelketan. Kanporaketak

larunbatean jokatu dira eta finala igandean izango da. Jai batzordekoek esan digutenez, "hasieran patin lasterketa egiteko asmoa genuen. Hala ere, hori antolatzea nahiko zaila zela konturatu ginen, besteak beste, errepidea itxi behar zelako. Beraz, ideia hori baztertu eta patin-hockey txapelketa egitea erabaki genuen".

Ohiko ekitaldien artean, larunbat gaueko tortilla lehiaketa aipatu beharra dago. Urtero dozena bat lagun elkartu ohi dira Bernat Etxepare plazan eta eltze artean ahalik eta lan txukunena egiten saiatzen dira, lehiaketako saria eskuratu nahian. Urteroko ohiturari jarraituz, ondoren herri afaria egingo da. Auzotarrek etxean prestatutako entsalada, gazta eta postre gozoak plazara eraman eta bertan, bapo afalduko dute.

### Puzgarriak eta dantza


Dena dela, ez pentsa Ipar Intxaurrondoko jaietan dena kirola egitea eta sabela ondo betetzea denik. Adibidez, azken urteetan bezala, aurten ere auzotarrak puzgarri aerostatikoan igo ahal izango dira, ostiral gauez. Puzgarria lurrera lotuta dagoen arren, bertara igotzen direnak lurretik hamar bat metrora egongo dira ordu erdiz.

Nabarmentzekoa da, bestalde, larunbatean dantza emanaldi ugari izango ditugula. Batetik, 19.00etan, auzoko Intxaurbreak-ek eta Iruñeko talde batek break-dance erakustaldia eskainiko dute. Break-dance emanaldiaren ostean, Intxaurdantza taldea ariko da. Azkenik, jai batzordekoek gaztetxoentzako diskoteka antolatu dute, larunbatean bertan, goizeko ordu txikiak arte.

Jaietako azken ekitaldia astelehen gaueko San Juan sua izango da. Dena dela, festen amaieran parrandarako gogoarekin jarraitzen baduzue, ez kezkatu. Izan ere, datorren astean, Hego Intxaurrondoko Kaldero Jaun jaiak iritsiko dira. Beraz, indarrak gorde!

### Intxaurrondo Hegoa ikastetxearen festa

Larunbatean, hilak 21, Intxaurrondo Hegoak ikustete amaierako festa antolatu du. Ikastetxeko ateak 11.00etan zabalduko dituzte eta gauera arte hamaika ekitaldi izango dira: haurrentzako puzgarriak, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoaren emanaldia... 20.00ak aldera, bestalde, dantzaldia eta zezen-suzkoa izango dira.



# UDAN euskara ONGI ikasteko



#### MAILA GUZTIAK

3 edo 5 orduko ikastaroak  
goiz eta arratsaldez

#### ALFA eta EGA

3 edo 5 orduko ikastaroak  
goiz eta arratsaldez

#### MAILA ALTUKO IKASLEENTZAT

20 orduko ikastaro motzak

Konstituzio Plaza, 5-2.a DONOSTIA · Tel.: 943 42 49 10 · www.ilazki.com



Ipar Intxaurrondoko jaietako ekitaldi guztiak, bi izan ezik, Bernart Etxepare plazan egingo dira. Desastrus Cirkus taldearen antzezlanak eta patin gaineko hockey txapelketa Gabriel Celaya plazan izango dira.

**Egitaraua**

**Ostirala 20**

- 18.30 Txupinazoa
- 18.40 Buruhandiak eta Intxaurtriki taldeko trikitilariak
- 19.30 Desastrus Cirkus taldearen "Bajo la carpa del cielo" antzezlanak
- 21.30 Puzgarri aerostatikoa
- 23.30 Zenezuzkoa

**Larunbata 21**

- 10.30 Diana auzoko kaleetan, Intxaurtriki taldeko trikitilariekin
- 11.00 Patin-hockey txapelketaren kanporaketak


- 11.30 Puzgarriak haurrentzat
- 11.45 Graffiti Festaren aurkezpena eta graffitiei buruzko hitzaldia
- 17.00 Patin-hockey txapelketaren kanporaketak
- 17.30 Aldibereko xake txapelketa
- 17.45 Skate ariketak
- 18.15 Graffiti Festaren hasiera. Txokolate jatea haurrentzat
- 18.30 Buruhandiak
- 19.00 Break-dance emanaldia
- 19.30 Graffiti lehiaketa
- 20.00 Intxaurdantza taldearen dantza emanaldia
- 21.00 Tortilla lehiaketa. Tortilla onenak sarituko dira.

- 21.30 Herri afaria
  - 23.00 Gazteentzako diskoteka
  - 00.30 Zenezuzkoa
  - 00.45 Diskotekaren jarraipena
- Igandea 22**
- 10.30 Diana, Intxaurtriki taldeko trikitilariekin
  - 11.00 Petanka txapelketa
  - 13.00 Toka eta Bote txapelketa
  - 13.15 Intxaurtriki trikitixa taldea, auzoan zehar. Auzoko erretiratuentzako lunch-a
  - 14.30 Sari banaketa
  - 17.00 Patin-hockey txapelketako finala
  - 18.30 Sardina jatea
  - 19.00 Pasai txaranga
  - 22.00 Zenezuzkoa
- Astelehena 23**
- 17.00 Plazara Goaz euskara taldeak antolatutako haur jolasak
  - 18.30 Buruhandiak
  - 19.00 Euskal dantza jaialdia Eskola Txiki taldearekin
  - 22.00 San Juan sua
  - 22.10 Euskal dantza erakustaldia Eskola taldearekin
  - 00.30 Zenezuzkoa
  - 00.45 Jaien amaierako suzuria



**Aieten ere su inguruan**

Lantxabeko Auzo elkarte-koek sua egingo dute Lanberrin, San Juan bezperan. Lantxabekoek gauzak zahar guztiak sutara botatzeko eskatu diete auzotarrei. Bestalde, txistua, trikitixa, txirula edota beste edozein musika tresna jotzen dakien orori festan parte hartzeko gonbitea egin diote auzo elkarte-koek. Jaia 21.30ak aldera hasiko da. Lanberrin elkartzen direnek traste zaharrak sutara bota, eta tragoxka hartu ahal izango dute txinpartei begira. Izan ere, sagardoa, ura, ardoa eta freskagarriak eskainiko dituzte Lantxabekoek.



**San Telmo Goilarea**

Pintxoak, Kaxuelak, Miniatura Sukaldaritza eta Platerakoa

Abuztuaren 31. kalea • 20003 DONOSTIA

**LIZARDI** AUTOESKOLA

Lizardi bidea 4  
Tel.: 943 28 73 61

INTXAURRONDO  
20015 DONOSTIA